

EROTISMOAK ZENTSURA PIZTU ZUENEOA

Karlos del Olmo

BUDA ZORIONTSUEN ETXEA

João Ubaldo Ribeiro

Itzultzailea: Karlos Zabala

Jatorrizko izenburua: *A casa dos budas ditosos*

Literotura bilduma

Txalaparta

Ez omen dago literatura erotikoa irakurtzeko urtaro egokiagorik uda baino. Hala diote, bederen, adituek. Beroak haragizko grinak pizten ei dituelako. Karlos Zabalak euskaraturiko eleberri eskandaluzko hau gozatzeko parada ezinago egokiak izango dira udako arratsalde edo gau ameslari bezain eldarnio amaiezinekoak. Eta, bide nabar, nork bere irakurralditik bidea izango du jakiteko ea behar besteko ziorik ba ote den XX. eta XXI. mendeen arteko pasabidean laster Europako lehendakaritza izango duen nazioan horrelako liburu bat saltzea hainbat tokitan debekatzeko. Halaxe jazo delako honako honekin. Moral publikoaren aurkako ogena, antza.

Zentzura moduko horrek ez du galarazi liburuak hainbat hizkuntzatan harrera beroa jaso izana. Ezta irakurle emakumezkoek berek eleberriari saria eman izana. Idazlea gizonezkoa izan arren, protagonistatzat hirurogeita zortzi urteko emakume bat aukeratu du idazleak, ahozko oroitidazki moduko baten bitartez, sexualitate bete-beteko biografia azaltzeko.

Enkarguz idatzitako lanek izen txarra izaten dute literaturzaleen artean, honako honek, ordea, norabide aldaketa ekarri zion egun Jorge Amadorekin batera gaurko brasildar literaturaren mugari eztabaida ezina den egileari, João Ubaldo Ribeirori. Norabide aldaketa eta itzelezko arrakasta. Idazle ez ezik, Ubaldo Ribeiro itzultzaile ere denez gero, berberak jarri zuen ingelesez Brasilen historia kontatzen duen *Gora Brasilgo Herria* eleberri mardul eta entzutetsua.

Liburuak ez da irakurri behar osagai sexual edo pornografikoagatik bakarrik, azken buruan, egileak berak dioenez, berberak bizi izandako garaiko emakumeen gizarte egoera eta jokabidea biltzen dituelako, lekukotasun moduko bat eskaintzen duelako, baizik. Halere, fikzio hutsa izan arren, emakume adinekoek sexualitatea eta erlijioa berbeta gai erabiltzea ez da erraz irenstekoa.

Edukiak idazlearen amorante, neskalagun, emazte ohi eta lagunak irakaspenak ditu oinarritzat. Idazlearen herrikideek, bahiarrek, alfer sona dute. Beraz, alferkeria haragi grina bihurtzen saiatu zen João Brasilgo historia beste ikuspegi epelago batetik azaltzeko. Sexuen arteko berdintasuna hartzen omen du oinarri idazleak emakumea mintzagai erabiltzerakoan.

Ahozko berbaldiaren gainean eraikitako fikzioa da, eta ahotik ahorako horri itzultzaileak ederto eutsi dio. Protagonista gizarte ekandu onak irudikatzen duten dama lege oneko horietako bat, sinestuna izan arren, sexuaren deia erantzuten dio batez ere. Emakumeentzat dena zailago zen garaian denetarik egiten ahalegindu zen emakume baten aitorkizun moduko batzuk ere dira liburukoak.

Hori dena eleberri bat saltzeari uko egiteko ziorik ote da? Ezin aipatu gabe utzi betiko eztabaida zaharra: desberdinak ote dira pornografia eta erotismoa? Ibaia balitz, nola bereiztu bi bazterrok? Literaturaren aldetik, erantzun bakarra eman daiteke: kalitate literarioak izan behar du azken hitza. Arrotzentzat Brasil sexuaren paradisia da. Baina

sexua nonahi da tabua, baita Brasilen bertan. Ezaugarriak aldatzen dira, baina tabu izaten dirau. Sexuak beldurra sortzen du, ezinegonez betetzen du gizartea.

Literaturan, batzuek, etiketak behar izaten dituzte. Literatura erotiko edo pornografiko moduan iragartzen den eleberri bat tesi nobela filosofiko edo erdi historiko soziologikoa izan daiteke? Irakurleak du hitza. Inondik inora, lekukotasuna azal atseginez jantzita dakar liburuak. Euskal estilistikak hainbat gai oraindik ez ditu behar beste jorratuta. Haietako bat, hitzezko erotismoarena edo pornografiarena. Karlos Zabalaren saio honek eremu labanak zapaldu behar izan ditu, halere, zorionez, ez du irristaldi arriskutsurik jasan.

Zer espero daiteke txikitik eguneko hiru liburu irakurtzeraino heltzen zen idazle batengandik? Literatura hutsa, edonondik begiratuta ere. Ubaldo Riberioren aitak oso trikimailu ederra zerabilen semearekin lan batzuk irakurrarazteko: debekua. Aitak liburu bat eragozteko nahiko zen semeak, berehala, sutsu, hura irakurtzen hasteko. Horrek, ondorioz, *Kamasutra* oso gaztetan irakurtzea ekarri zuen, debekuekoen artean zegoenez gero. Ondorioa: *Buda zoriontsuen etxea* txiki bezain handi eta dibertigarria. Literatura darion sexualitatea edo sexua darion literatura? Nondik ere begiratzen diogun.